

CSICi atxikitako unitate bat sortu da Mondragon Unibertsitatean

2011/06/30

CSIC-Ikerketa Zientifikoaren Goren Kontseiluak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Konformatuen Taldea CSICi Atxikitako Unitate gisa errekonozitu du, CENIM-Espainiako Ikerketa Metalurgikoen Zentroaren bitartez. Figura horrek Konformatuen Taldeak eta CENIM-CSICeko COPROMAT-Materialen Korrosio eta Babes Taldearen arteko harremana formalizatzeko balio du, eta elkarren arteko lankidetzaren sustatuko du ikerketako arloetan zein hezkuntzakoetan. Zehazki, agertzen ari diren materialei buruzko gaiak landuko dira, muturreko baldintzetan prozesatzeko eta/edo erabiltzeko, bereziki azken belaunaldiko aleazio metalikoei dagokienez.

Atxikitako Unitatearen sorrerarekin datorren lankidetzaren hitzarmenean berariaz aipatzen dira, elkarren arteko ekintzen barruan, bi Zentroetan dagoen materialaren erabilera partekatzea, bi Taldeetako pertsonal propioaren mugikortasuna eta patente erabilgarrien tramitazioa, CSICen bitartez. Atxikitako Unitateak, halaber, CSICeko deialdietan eta bestelako ekintzetan – barnekoak zein kanpokoak– parte hartu ahal izango du, CSICeko pertsonen baldintza berdinetan.



CSICaren logoa